

Jose Ignazio Ansorena

TXISTULARIA ♦



DANI BLANCO

Ez dakit zer naizen eta ez nago harro

ESAMOLDE topiko bihurtu da aldarrikapen askotan: “Halakoa naiz eta harro nago”. Nik zer naizen ez dakit, bai, ordea, ez nagoela harro. Harroak bizkotxoak egotea hobe, ez pertsonak. Gure pailazo talde ohiaren ibilbidea harro egoteko arrazoiak zela esan zidan joandakoan lagun batek. *Sufi* maisu eta Jesukristoren antzera neuk ere parabola batez erantzun nion: “Baziren bi ahizpa, seme-alaba txiki hainbat eta aita zaharra zituztenak. Oporretan, egunero, aita zegoen ahizparenean biltzen zituzten haur guztiak. Hango gela handian aritzen ziren jolasean, gurasoak lanean edo bestelakoetan zebiltzalarik. Hantxe ere aita zaharra besaulkian, aspalditik ibili eta hitz egiteko ezindua. Haurrak entretenitzeko Txirri, Mirri eta Txiribitonen bideoak ordu askotan jartzen zituzten ikusgai.

Halako batean, ahizpa batek kaletik bueltan etorritakoari esan dio:

– Aizan, aita zer bait esan nahi duela ematen din.

– Ezinezkoa, neska, lau urte daramatza hitzik esan gabe—. Hurreratu zaizkio, baina, eta ia ahotsik gabe zaharrak honela esan die:

– Kenduko al dituzue behingoz pailazo plasta horiek telebistatik!”.

Hau ez da parabola, ezagun batzuei benetan gertatua baizik. Horiexek izan ziren aita horren azken hitzak (egiazalea izatekotan, apur bat lodiagoak), handik egun gutxitara hil baitzen. Gure balizko harrotitaren aurkako txerto ona.

Gizajo eginda ibiltzea ere triste da. Nork bere buruaren onarpen pozgarria behar du, baldin osasuntsu biziko bada. Gure aitona-amonen garaiko abestian, azal txuria modan zegoenean, ederki agertzen da ideia hori:

Beltxarana naizela
kalian diyote,
enaiz txuri ederra,
arrazoya dute.
Txuri eder galantak,
dozenan hamabi,
beltxaran graziosuak,
milaetatik bi.

Claudio Magris idazle maitea Bilbon izan da eta *Berriak* elkarrizketa egin dio: “Idatzi dituenen baino gehiago, irakurri dituenen omen dago harro bera”.

Harro egotea ez da, ordea, ondo lotzen bere lanen bitartez egindako ekarpenekin. Topikoak garamatza ohartu orduko.

Eskerrak jarraian Europako kulturarik onenaren bi perla gogorarazi zituen: “Tradizioarekiko errespetua baino garrantzitsuagoa da eskubideen defentsa. Hurkoa aurkitzea da sakonean ohar-tzea ez dagoela hurkorik. Ez dela benetan hain bestelakoa”.

Harro egoteko moduko ideiak beltxaran graziosoarentzat. ■



DANI BLANCO



Kattalin
Miner



KAZETARIA

“Mutiko”

AURREKOAN KALEAN nindoala andre batek “barkatu mutiko” esan zidan. Galdera bat egin zidan eta erantzuten hastearekin batera, ohartu nintzen ohartu berri zela ni neu ere ez nintzela “hain mutiko”. Prim kalea non zen azaldu ostean eskerrak eman zizkidan, baina amaiera lapidarioa izan zuen, “eta barkatu mutiko esateagatik” batekin hasi zen esaldi sorta deserosoa.

Txikitan, kontraesanez beteriko umea izan nintzen urte askoan. Mutikoa izan nahi zuena (kontzeptu gisa), baina besteek mutiko gisa identifikatzen zutenean “neska naiz!” oihukatzen zuena. Mutikoa eman nahi zuena, baina besteen filtroeta-

tik pasatu gabe, inork ezer esan gabe, baimenik gabe. Angel Erroren poema hark dioen bezala, *Neska mutilatua*.

Eta aurrekoan andre hark barkamena behin eta berriz eskatzen zidan artean, sentitu nuen txikitako sentsazio kontra-sankor hori. Neska mutilatuaren sentsazio umezurtz hori, besteak lotsatzerainoko genero okerrean bizi zaren sentsazio triste hori. Segundo bakar bat izan zen oraingoan ordea, eskaparatute batean nire isla ikustearekin bat desagertu zena, neska mutilatu osaberri bat antzematearekin batera. ■

